

Izenburua	<i>Euskararen lekukoak</i>
Formatua	Eskola-liburua
Egilea	Ikaselkar
Nori zuzendua	DBH 3ko ikasleei
Konpetentzia	Ikasleak inguruko errealitate soziolinguistikoa kritikoki interpretatzen du hizkuntzen bizitza eta garapena baldintzatzen duten faktoreak eta haien arteko harremanak ezagutzuz, euskararen erabileraren eta normalizazioaren aldeko konpromiso aktiboa garatzeko, beste hizkuntzekiko errespetu eta balioespen jarrerekin batera.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Soziolinguistikaren eremu semantikoa eratzen duten oinarrizko terminoen esanahia ikasi eta ezagutza hori hizkuntza-errealitate jakinen interpretazioan aplikatzea. • Fenomeno bat konpontzeko proposamenak eta haien kausa posibleak emanik, erlazio semantikoa dutenak hautatzea. • Emandako euskarrietatik finkatutako komunikazio-asmoaren araberako informazioa hautatu eta adieraztea, dagokion egituraren arabera antolatuta. • Elkarlanean ikerketa-lana planifikatu eta gauzatzea, norberaren egitekoak arduraz eta eraginkortasunez betez. • Hainbat iturritatik eskuratutako informazioa koherentziaz eta zuzentasunez adierazteko landutako baliabideak (hizkuntzakoak zein grafikoak) autonomiaz aplikatu, emandako testuetan eta norberak sortutakoan.
Metodologia	Unitatea bi osagaitan dago antolatua: batetik, <i>Hizkuntzen egoera: nolakoa da, eta zergatik?</i> ; bestetik, <i>Euskararen egoera gurean: ikerketa</i> . Lehenengo osagaian, soziolinguistikari lotutako kontzeptuak lantzen dira, era bateko eta besteko testuren ulermenaren bidez, eta taldeka egingo duten ikerketarako gaiak eta ideiak iradokitzen dira. Bigarrean, lekuan lekuko ikerketa prozesua bera bideratzen da,

	taldeka, eta hainbat hizkuntza-baliabide lantzen dira ikerketaren prozesua eta emaitza jasotzeko idatziko duten ikerketa-txostenerako.
Denboralizazioa	Eskola-liburu hau ikasturteko 3 unitatetik 2. unitateari dagokio, hortaz, ebaluazio oso bateko iraupena izango luke lanketa honek